

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.-

Udal honek, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauan eta tributuari dagokion Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga ezarri eta exijitzen du, Ordenantza honi jarraiki, tarifa aplikagarriak dituen Eranskina parte delarik.

2. Artikulua.-

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

II. EGITATE EZARGARRIA

3. Artikulua.-

Lan edo hirigintza lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da egitate ezargarria, lizentzia hori jaso edo ez jaso arren, baldin eta lizentzia ematea Udal honi badagokio.

4. Artikulua.-

Zergapeko egitate ezargarria, banan-banan adieraziz, ondorengoek osatzen dute:

- 1.- Solairu berridun mota guztietako eraikuntza edo instalazioetako eraikitze-obrak.
- 2.- Dauden mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak.
- 3.- Dauden mota guztietako eraikuntza eta instalazioen estrukturan eragin dezaketen aldaketa edo erreformazkoak.
- 4.- Dauden mota guztietako eraikuntza eta instalazioen kanpoko itxuraren aldaketa dakarkitenak.
- 5.- Eraikuntzen barne antolamendua aldatzen duten obrak, beraien erabilera edozein delarik ere.
- 6.- Lurzoruaren Legearen testu bateratuko 58. artikuluko 2. atalean azaltzen diren eta behin behineko izaerarekin egin behar diren obrak.
- 7.- Zerbitzu publikoen instalaziorako obrak.
- 8.- Lur higidurak, hala nola lurrerauzketak, lauketak, indusketa eta lurreztaketa, egintza horiek onartu edo baimendutako Hirigintza edo Eraikuntza Proiektuaren batean egin beharreko obratzat zehaztu eta programatuta leudekenean salbuetsiz.
- 9.- Eraikuntzen erauzketa, aurri zorian daudela aitortuetan salbu.
- 10.- Aparkaleku, industria, merkataritza edo lanbide jarduera, zerbitzu publiko edo lurrazpiari ematen zaion beste erabilera batzuetara bideratutako lurpeko instalazioak.
- 11.- Bide publikotik ikusteko moduan egiten den propaganda kartelen jarketa.
- 12.- Gaitasun ekonomikoa eta obra eta hirigintza lizentziapean egotea suposatzen duten eta errekurtsio ekonomikoen inbertsioa dakarkiten edozein obra, eraikuntza edo instalazioak.

5. Artikulua.-

Zerga honen pean ez dira egongo Udal honi dagokion titularite dominikaleko higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, obraren jabe izaera Udalak berak betetzen badu.

III.- SUBJETU PASIBOAK

6. Artikulua.-

1 Ondorengoak ditugu, zergadun moduan, zerga honen subjeto pasiboak: Foru Tributu Arau Orokorraren 33. artikulua aipatu eta eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten direneko ondasun higiezinaren jabeak, obren jabeak baldin badira; gainerako kasuetan, obraren jabea denari eritziko zaio zergadun.

2. Udal Administrazioaren aurrean fedemaileki frogatzen ez bada obraren jabe izaera ez dagokiola obra egiten den higiezinaren jabeari, beste pertsona edo entitate bati baizik, ulertuko da higiezinaren jabea dela arduraduna.

7. Artikulua.-

1. Zergadunaren ordezko subjeto pasibo eritziko zaio dagozkion lizentziak eskatu edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egin ditzanari, zergaduna bera ez bada.

2. Nolanahi ere, Udal Administrazioak zergapekoaren ordezkoari exijitu ahal izango dio zergapeko izaera duen pertsona edo entitatearen identitatea eta helbidea.

IV. OINARRI EZARGARRIA

8. Artikulua.-

1.-Zergaren oinarri ezargarria sujeto pasiboak edo izaera hori duenak bere gain hartzen duen eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreala eta efektiboa izango da.

2. Aurreko zenbakian erabakitakoaren ondorioetarako, behin-behineko likidazioa kitatzeko oinarriztat hartutako egikaritze aurrekontuak, materialen kostua, proiektu eta zuzendaritzaren lansari teknikokoak, industri onura eta gastu orokorrak hartuko ditu bere barne, eta baita aldez aurretiko lan eta lan laguntzaileen kostuak ere.

3.- Udal lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio edo obren kasuetan, oinarri ezargarria Udal Administrazioak ezarritakoa izango da.

V. ZERGA KUOTA

9. Artikulua.-

Oinarri ezargarriari eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuz aterako da zerga honen kuota.

VI. SORTZAPENA

10. Artikulua.-

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan gertatzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

VII. KUDEAKETA

11. Artikulua.-

Aginduzko lizentzia ematerakoan behin-behingo likidazioa egingo da, oinarri ezargarria, doakienek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehatzuz, baldin eta aurrekontu hori dagokion Elkargo Ofizialak ikuskatua izan bada; hala izan ez bada, edo lizentziarik ez bada lortu, udal-teknikariek, egitasmoari atzemandako kostuaren arabera zehaztuko dute oinarri ezargarria.

12. Artikulua.-

Dagokion lizentzia eman ondoren lehen proiektua aldatuko balitz, behin-behineko likidazio berri bat egiteko aurrekontu berria aurkeztu beharko da lehen aurrekontua garestitzen denaren arabera.

13. Artikulua.-

1.- Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren benetako kostu eraginkorra ikusiz, Udal Administrazioak bidezko administrazio egiaztapena eginda, aldatu egingo du, hala badagokio, aurreko atalean aipatzen den oinarri ezargarria, dagokion behin-betiko likidazioa eginez, eta dagokion zenbatekoa subjeto pasiboari eskatuz edo, hala gertatuz gero, itzuliz.

2.- Aurreko atalean xedatzen denaren ondorioetarako, obra bukatu edo berau behin-behingo hartzen denetik eta ondorengo lehen hilabetearen barruan, zirkunstantzia honen aitortzea aurkeztuko da Udal Administrazioak horretarako emango duen inprimakian, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiriarekin batera, azken hau dagokion kolegio profesionalaren oniritziarekin, hau egin ahal denean, bertan obren kostu osoaz ziurtatu beharko da, proiektu eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industrial onura eta obren ondorioz egon daitezkeen beste batzuk sartuz.

14. Artikulua.-

Zergaren likidaziorako, administrazioak lizentzia emateko isiltasun positiboa erabiliko balu, lizentziak, hau espreski emango balu bezala balioko du.

15. Artikulua.-

Ordenantza honetan erregulatutako zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokienez, era berean zerga urraken kalifikazioa eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenak erabakitzeari dagokienez, Foru Zerga Arau Orokorrean aurrikusitakoa izango da aplikagarri.

16. Artikulua.-

Lizentziaren titularrak, baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakiko balu, idatzi bidez espreski adieraziz, Udalak eginiko behin-behineko likidazioa itzuli egingo du edo bertan behera utziko du.

17. Artikulua.-

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuli edo bertan behera utziko du, titularrak berritzea eskatu eta udalak baimena ematen ez badio behintzat.

VIII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau aldarazten duen akordioa eranskinean adierazten den batzarrean hartutakoa da. Ondorioak data horren hurrengo urteko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu, derogatu edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

| | |
|---------------------------------|------------|
| Azken aldaketaren onarpen data: | 2020-10-08 |
|---------------------------------|------------|

| KONTZEPTUA | EHUNEKO APLIKAGARRIA |
|--|----------------------|
| - Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza | 2 |
| - Baserrietan egindako obrak | 3 |
| - 120.000, € arteko obrak | 3 |
| - 120.000,00 €tik 180.000,00 € tarteko obrak | 3,5 |
| - 180.000,00 €tik gorako obrak | 4,5 |

Hobariak:

- * Etxebizitza sozialen araubide juridiko eta ekonomikoaren barruan dauden etxebizitzak: **%95eko hobaria.**
- * Merkataritza lokalen modernizazioa, proiekturik behar ez duenean, **%75.**
- * Baserrien kasuan **%75eko hobaria** aplikatuko zaio ustiaketari lotutako eraikin eta instalazioetan egindako obra eta espedientei dagokien obra tasan, zergan eta irekitze tasaren kitapena egiterakoan. Baserrian etxebizitzan egindako obretan ez da aplikagarri izango hobari hau.
- * Etxebizitza barruan pertsona ezindu edo menpekotasuna duen bat bizi denean irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazteko obretan, **%90eko hobaria** aplikatuko da. Baldintzak: Mugikortasun murriztua, gutxienez 7 puntukoa, edo tipo A edo B, edo Dependents Legeko hiru graduetako edozein, eta Etxe horretan erroldatuta egotea.
- * Eguzki plakak instalatzea: **%95eko hobaria.**
- * Interes bereziko obrak: **%95eko hobaria.**